



2014KO OTSAILAREN 5EAN KIROLAREN EUSKAL KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAREN AKTA

BERTARATUAK:

- Lehendakaria. **Cristina Uriarte Toledo** andrea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua.
- Lehendakariordea. **Joxean Muñoz Otaegi** jauna, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea.
- **Jon Redondo Lertxundi** jauna, Gazteria eta Kiroletako zuzendaria.
- **Maite Fuentes Azpiroz** andrea, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko Dekanoa.
- **Jon Zuazagoitia Nubla** jauna, **Miren Dorronsoro Iraeta** andrearen ordez, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria, Osasuneko sailburuak izendatua.
- **Jesús Fernández Ibáñez** jauna, Ikastetxeen zuzendaria, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua.
- **Asier Sarriegi Zumarraga** jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatua.
- **Andoni Busquet Elorrieta** jauna, udal-administrazioaren ordezkartzan, EUDELeK proposatua.
- **Ana M^a Rodríguez Fouz** andrea, udal-administrazioaren ordezkartzan, EUDELeK proposatua.
- **Alfredo Iturricha Yaniz** jauna, udal-administrazioaren ordezkartzan, EUDELeK proposatua.
- **Fernando Garrigós Gabilondo** jauna, Euskal Herriko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo Ofizialaren ordezkartzan.
- **Jon Berasategi Zabala** jauna, kirol profesionalaren ordezkartzan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua.
- **Agustín Rojo Bacigalupe** jauna, Euskal Kirol Federazioen kirol-modalitate olinpikoetako federazioen ordezkartzan.
- **Joseba Saies Alzua** jauna, kirol-modalitate olinpikoetako euskal kirol federazioen ordezkartzan.



- **Igor del Busto Madariaga** jauna, kirol-modalitate olinpikoetako euskal kirol federazioen ordezkari izan.
- **Miguel Angel Muela Pérez** jauna, kirol-modalitate ez olinpikoetako euskal kirol federazioen ordezkari izan.
- **D. Bernardo Ureta Peña** jauna, 14/1998 Legeko 5. xedapen gehigarrian jasotako modalitateetako euskal kirol federazioen ordezkari izan.
- **Juan Antonio López** jauna, **Jose Francisco Jauregui Galarraga** jaunaren ordezkari, 14/1998 Legeko 5. xedapen gehigarrian jasotako modalitateetako euskal kirol federazioen ordezkari izan.
- **Porfirio Hernández Zubizarreta** jauna, dibertsitate funtzional baten bat duten pertsonen egindako kirolaren ordezkari izan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua.
- **José Luis González Fernández** jauna, unibertsitate kirolaren ordezkari izan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua.
- **Susana Santor Martínez** andrea, eskola kirolaren ordezkari izan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua, sektoreko agenteek proposatutako pertsonen artean aukeratua.
- **Arantzazu Rojo Gomez** andrea, kirolaren beste sektore batzuen ordezkari izan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua.
- **Cándida Navarro Llorca** andrea, kirolaren beste sektore batzuen ordezkari izan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua.
- **Javier Aldazabal Etxebarria** jauna, kirolaren beste sektore batzuen ordezkari izan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua.
- **Iñigo Olaizola Alkorta** jauna, kirolaren alorrean aitortutako ospea duen pertsona, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua.
- **Maidier Unda Gonzalez de Audicana** andrea, kirolaren alorrean aitortutako ospea duen pertsona, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua.
- **Elisabet Altube Bengoa** andrea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko funtzionarioa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua. Kirolaren Euskal Kontseiluko idazkari jardungo du. Iritzia eman ahal izango du, baina botorik ez.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK:



- **Iciar Lamarain Cenitagoya** andrea, Arabako Foru Aldundiak izendatua.
- **Maitane Leizaola Zulueta** andrea, Bizkaiko Foru Aldundiak izendatua.
- **Javier Zurriarán Azagra** jauna, Euskal Kirol Federazioen Batasunaren ordezkari izendatua.
- **Iván Zaldua Azkuenaga** jauna, kirol-modalitate ez olinpikoetako euskal kirol federazioen ordezkari izendatua.
- **Jose Luis Arrieta Lazkano** jauna, kirol-modalitate olinpikoetako euskal kirol federazioen ordezkari izendatua.
- **Mikel Urdangarin Liebaert** jauna, jolas-kirolaren ordezkari izendatua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua, sektoreko agenteek proposatutako pertsonen artean aukeratua.
- **Elaia Torrontegi Ronco** andrea, kirolaren alorrean aitortutako ospea duen pertsona, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak izendatua.

2014ko otsailaren 5ean, arratsaldeko 16:00etan, Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan Kirolaren Euskal Kontseiluak Osoko bilkura egin du. Kontseiluko Lehendakari Cristina Uriarte Toledo andreak, hasiera eman dio ekitaldiari eta sinatzen duenak idazkari lanak egin ditu. Hauxek dira gai-zerrendan sartutakoak eta aztertzeak:

1.- AURREKO BILERA-AKTA IRAKURTZEA, ETA HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.

Osoko bilkurak 2010eko azaroaren 23ko bilkuraren Akta onar dezan proposamena egin da. Porfirio Hernández jaunak zuzenketa-proposamen bat egin du: “ezintasun fisikoak, psikikoak, sensorialak edo mistoak dauzkaten pertsonen kirola” dioen lekuan, “dibertsitate funtzionalak dauzkaten pertsonak” idaztea proposatu du. Oharra eginda, Akta onartu egiten da.

2.- 2013-2016 LEGEGINTZALDIRAKO HELBURUAK KIROLAREN ALORREAN.

Gazteria eta Kiroletako zuzendariak legegintzaldi honetarako xedatutako helburuak aurkeztu ditu. Ikus erantsitako dokumentua.



3.- KIROLAREN EUSKAL KONTSEILUKO BATZORDE IRAUNKORRA OSATZEKO PROPOSAMENA.

Kirolaren Euskal Kontseilua arautzen duen azaroaren 7ko 220/2000 Dekretuko 10. artikuluari jarraiki, Batzorde Iraunkorreko partaideak hauexek dira:

- a) Kultura sailburua (egun Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua) .
- b) Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea.
- c) Kirol zuzendaria (egun Gazteria eta Kiroletako zuzendaria).
- d) Foru Aldundien hiru ordezkari, bakoitza Foru Aldundi batekoa.
- e) Osoko Bilkurak bere kideen artean izendatutako lau pertsona. Horiek Osoko Bilkuran dauden kirol sektoreak (publiko nahiz pribatu) ordezkatu beharko dituzte, batez ere udal administrazioa eta kirol federazioak.
- f) Kirolaren Euskal Kontseiluaren idazkaria izateko izendatutako funtzionarioa da (hitza badu, baina botorik ez).

Hortaz, lau dira Osoko Bilkurak izendatu behar dituen pertsonak. Aukeraketa errazte aldera, honako proposamen hau egiten da. Ikus dezagun osaketa:

CRISTINA URIARTE	HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIK ETA KULTURA SAILBURUA
JOXEAN MUÑOZ	KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLETAK SAILBURUORDEA
JON REDONDO	GAZTERIA ETA KIROLETAKO ZUZENDARIA
ICIAR LAMARAIN	ARABAKO FORU ALDUNDIA
MAITANE LEIZAOLA	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
ASIER SARRIEGI	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
ANDONI BUSQUET	EUDEL-BASAURIKO ALKATEA
ARANTZA ROJO	FORTUNA ATLETISMO KLUBA
FERNANDO GARRIGOS	EUSKAL HERRIKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIE TAKO LIZENTZIATUEN ELKARGO OFIZIALA
JAVIER ZURIARRAN	EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNA



--	--

Osoko Bilkurako kideei proposamen hau helaraztea erabaki da, egoki deritzeten ekarpenak egin ditzaten organoa osatzeko.

4.- HAINBAT INFORMAZIO

Gazteria eta Kiroletako zuzendariak 2013an Gazteria eta Kiroletako Zuzendaritzak kirolaren alorrean egindako ekintza esanguratsuenen berri eman du. Ikus erantsitako dokumentua.

5.- GALDE-ESKEAK

- Dibertsitate funtzional baten bat duten pertsonak egiten duten kirolaren ordezkariak azaldu duenez, Eskolarteko Kirol Jokoetan parte-hartzeari buruz egindako aipua izan ezik, ez da ordezkatzeko kirolaren inongo erreferentziarik egin.

Erreferentziarik ez egitearena komentatu da; kontuan hartu da diru-laguntzei dagokienez, goi-mailako laguntzei dagokienez, eta abar. Hala ere, Gazteria eta Kiroletako zuzendariak Federazioarekin ahalik eta lasterren zehaztuko den bilera bat egiteko konpromisoa hartu du, konkrezio handiagoko eginkizunen bat egite aldera.

- “Goi-mailako” izendapenetik urrun edo zerikusi gutxi duten kirol-modalitateen egungo egoerak eta berauen inguruabarrak aztertze eta aintzat hartze eta azterlan bat egiteko aukera azaldu da.

Azterlan hori egingo dela erantzun dute, baina kontuan izan beharreko zailtasunak ere azaldu dituzte: irizpideek komunak eta objektiboak izan behar dute eskatzaile izan daitezkeen guztientzat (pertsonak/erakundeak); aipatutako objektibazio horrek zirkunstantzia diferentzialak aintzat hartzea oztopatzen du.

- Zein kirolari jotzen den talentuduntzat galdetzen dute; Fadurako Teknika Hobekuntzarako Zentroan laguntza jasotzen dutenak zeintzuk diren; baita banakako modalitateetan aritzen diren kirolariek gain, taldekako kirolan aritzen direnek ere laguntza jasotzen duten ere galdetu dute.

Talentuduntzat jotzen dituzte etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariak, euren ibilbidean goi-mailara heltzeko gai direnak, eta izendapena dagokion foru aldundien ardura da. Teknika Hobekuntzarako Zentroen laguntza teknikoa eta biomedikoa aldundiekin sinatutako hitzarmenen bidez gauzatzen da. Egun indarrean dago Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko hitzarmena, eta prestatze-fasean dira Arabakoarekin eta Bizkaikoarekin.

Taldekako modalitateetako kirolarientzako laguntzei dagokienez, *Fundación Euskadi Kirola Fundazioak* banakako kirolariek laguntza emateaz gain, estrategikoak diren kirol-gunei ere laguntza ematen diela esaten dute. Egun piraguismoa, belar-hockeya, pistako



txirrindularitza, eta esku-balioa dira lagundutakoak; 2014an 7ko errugbia ere izango da babestua.

- Euskal kirol federazioek jasotzen dituzten laguntzen gainean, beroriei eutsi behar zaiela esan dute, nahiz eta krisi-garaian bizi. Galdera egin dute: zein ekintza jorratuko da Gazteria eta Kiroletako Zuzendaritzatik Lizentzia Bakarra ezarri nahi duen estatu mailako araudiaren aldaketari buruz.

Erantzuna: araudia aldatzeko egitasmo horrek bi alderditan eragiten dio kirol-lizentziari dagokionez: batetik, homologatuak diren baimenak jaulkitzeko agindua estatuan lehiatu ahal izateko, eta horrek lizentzien prezioan daukan eragina, alferrikako gastua datekeelako estatuan lehiatu nahi ez dutenentzat; bestetik, edozein autonomia erkidegotan lehiatzeko aukera Estatuko edozein autonomia erkidegotako lizentziarekin, kompetentzietan endredatzea litekeena. Neurri horren aurka dauden beste autonomia erkidegorekin eta Kirol Kontseilu Gorenarekin bilerak egin direla jakinarazi dute. 2013ko abenduan egindako azkenean kontuan hartu ez ziren zenbait proposamen egin zituzten. Eusko Jaurlaritzak beharrezko kudeaketa bideratuko du aipatu araudia aldatzeko, euren eskumenak babesteko Legebiltzarrean izapidetzea albo utzi gabe.

- Jarraian Eusko Legebiltzarreraino ailegatu den eztabaida izan dute hizpide: harreman ezberdineko erregimeneko agenteek eskola kirolean jarduerak egiten dituztenek eragindakoa. Gehienak boluntarioak dira eta Gizarte segurantzak ikuskapenak egiten dihardu. Fernando Garrigós jaunak txosten bat egin du eta Legebiltzarreko taldeei zein Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetako kargudunei helarazi die. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak azterketa abian jarri du, gaia konplexua baita. Informazioa izandakoan, berori jakinaraziko da.

- Unibertsitatearen alorretik kezka plazaratu da: errendimendu handiko kirola eta jardun akademikoa bateragarri izateko abian jarritako eta bukatzeke dauden ekintzak zertan diren. Ikasleek eskoletara joateaz gainera, kirol-lehiaketetan parte hartu behar dute. Bateragarritasuna aurreikusita dago, eta neurri batean araututa ere; baina, entrenamenduetara ere joan behar dute, eta gaur egun, alderdi hau ez da kontuan hartu.

Protokoloak bidean direla jakinarazi dute, eta neurri horiek Unibertsitatetik bertatik egokitu ahal direla, nahiz eta zehaztu behar diren.

- Egindako beste ekarpen bat honi egin dio kasu: kirol-titulazioen artikulazioa gero eta egoera makurragoan da.

Prestakuntzaren koordinazio eta hobekuntzaren gaineko hausnarketa egiten dihardutela erantzun dute. Duda barik zerbitzuaren hobekuntzan eragingo du.

- Herri Kiroletako Euskal Federazioak hauxe azaldu du: jarduera fisikoa egitearen onurak sedentario izateari uzteko prozesua eta abantailak aurreko mintzagaietako bat izan da, eta horren inguruan proposamena egin dute: eskola arteko bidea bestela egitea ona liteke, hau da, orainokoa autoz edo autobusez egiten den tarte hori, bizikletaz edo oinez osatzea,



ekintza fisikoei eskaintzen zaien denbora handiagotuko litzateke eta ingurumenaren mesedetan eragingo luke.

Bestetik, sokatirak nazioartean duen ordezkartiaz jardun dute, eta Gazteria eta Kiroletako Zuzendaritzaren lankidetzaz eskertu dute, Nazioarteko Federazioan sartzeko beharrezko izapidetze-lanak egiteagatik.

-Egindako beste ekarpen batek horrela dio: Goi-mailara ailegatzeko azalpenean irudikatutako kirolarien ibilbidea *Etorkizun oparoa dutenak /Talentudunak* multzoetatik abiatzen da. Akaso eskola-kirolak beharko luke abiapuntu azalpen horretan.

Erantzuna: Eskola-kirolaren etapa hori ez da irudikatu Eusko Jaurlaritzaren eskumenetik kanpo dagoelako. Talentudunak Etorkizun oparokoak direnen taldetik abiatzen dira, eta beroriek dira Jaurlaritzak babesten dituenak. Eskola-kirola foru aldundien eskumena da, eta bertatik hasi behar lanean.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, bilera arratsaldeko bost eta erdietan bukatu da, eta idazkaria naizen honek hari buruzko Akta hau egin dut eta jasotakoaz fede ematen dut.

CRISTINA URIARTE TOLEDO
andrea

IZP.: ELISABET ALTUBE
BENGOA andrea

KIROLAREN EUSKAL
KONTSEILUKO
LEHENDAKARIA

KIROLAREN EUSKAL
KONTSEILUKO IDAZKARIA